



Ospakizunen astea

Lasarte-Oriako udalerrriaren 25. urteurrena ospatzeko hainbat ekintza egin dira eta asteburua ere betea dator

Lasarte-Oria, 1986ko otsailaren 15ean, bihurtu zen udalerrri. Asteartean, 25 urte bete ziren eta hori ospatzeko, Ama Brigitarren komentuan meza egin zen. Ostean, udal batzar aretoan, hain egun seinalatuko udal batzarraren

akta irakurri eta Lasarte-Oriako ereserkia abestu ziren.

Baina ez dira asteko ekitaldi bakarrak izan, astelehenean hasi baitziren 25. urteurrenako ospakizunak gure herrian eta asteburuan beste hainbat egingo dira. **/4-5 orrialdeetan**

Aspanogi-k pailazo taldea omendu du

Aspanogi, minbizia duten haurren guraso-en elkarteak astelehenean, otsailaren 14an, omendu zuen Porrotx, pailazo talde osoarekin batera. Antolatutako ekitaldi hunkigarrian elkarteak oroigarri bana eman zien gaixotasunaren errealitatea gizarteratzen emandako laguntza eta egindako lan guztia eskertzeko.

Ekitaldi hau aprobetxatuz, gaixorik dauden nerabeentzako Minbizi Unitate Berezia eskatu zuten. •



Otsailaren 14an Aspanogik Minbizidunen Haurren Egunari aurre hartuz, herriko pailazo taldea omendu zuen.

GIZARTEA /3

Jendez inguratua ospatu zituen 100 urte Lorenza Vegasek

POLITIKA /6

Ezker abertzaleak buzoiak jarriko ditu herritarren iritzia jasotzeko

KIROLA /6

Beltzak Ostadar Jalai Errugbi taldeak niki berria aurkeztu du

DENDA BERRIA LASARTE-ORIAN

HORSE & COMPANY

ZALDI ETA ZALDIZKOEK BEHAR DUTEN GUZTIA

Trakur eta katuentzako behar duzuna

Beko Errota 11 behe (Kirolegiaren parean) ■ Tel.: 943 373560

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

—oto depilazioa argi pultsatuekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak • Makillajeak • Beste hainbat zerbitzu

Uistin Kalea 1/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Neure kabuz



24+1

Ez dira, ez, nik bete ditudan urteak. Gauzak asko aldatu dira udalaxea sortu zenetik. Ikusi besterik ez dago udalaxea gure etxetara bidali duen aldizkarian. Bertan orain arte izandako bi alkateek herrian egin dena (dutena) aipatzen dute, "gu" eta "nosotros" formulak erabiliz. Agian gaizki pentsatua naiz, baina egindako gutzia patrimonializatzen ari direla iruditzen zait. Bai. Duela urte gutxi gogoratzen naiz aurreko alkateari entzun niola: "zergatik ordaindu behar dut NIK bake-epaitegia?". Noski, "ni" horrek Lasarte-Oriako herria adierazten zuen. Ez diot egindakoari meritoa kenduko, baina ez patrimonializatu, mesedez.

Bestetik, horrelako ospakizunetan nire inpresioa izan ohi da udalaxeko agintarientzat "herria" 1986an sortu zela (zutela), ordurarte jendeak bere burua Hernaniartzat, edo Urnietartzat, edo ... hartzen omen zuelako. Niretzako, aldiz, betidanik izan da herri-sentimendua, nahiz eta udalaxerik ez izan. Ni Lasarte-Oriarra sentitu izan naiz beti. Eta beste asko, ni bezala. Gure aitak kontatu izan dit Gerra Zibila baino lehenago ere izan zirela udalaxea sortzeko herri-ekimenak, baina ez zutela haiek arrakastarik ez. Beraz, herri izatearen desioa urrutikoa da, eta ez berria.

Beno, besterik ez... Ah, bai!!! Nor izango da hurrengo alkatea? Bai, badakit, errepikatzen naiz, baina 24+1 urte ondoren, ez al da aldakuntzarako garaia iritsi? Yes, we can. Gora gure Lasarte-Oria!

Iñaki Erauskin

Zorion-agurrak



Veronica

Arrazoi ugari dituzu ospakizunetarako! Zorionak 'andereño' eta ondo pasa!



Mailu

Zorionak rubia! Urteak bete arren, beti bezain ondo mantentzen haiz!



Suhar

Zorionak eta bost muxu handi Udane, ama eta aitaren partetik.



Raul

Zorionak aitaxo eta muxu pila pila patata tortila. Zure bi printzesen partetik.



Esther eta Judith

Zorionak zuen zargarren urtebetzean! Muxu potolo bat! Amona Cefe eta osaba Gonzaloren partetik.



Andrea

Zorionak Panpoxa! Hamar muxu potolo, Haizea, Naroa eta familiaren partez.



Naroa

Zorionak makarrila, zazpi muxu haundi. Maite zaitugu. Julen, aitaxo eta amatxo.



Ane Bego

Zorionak zure hamabostgarren urteurrenean. Ondo pasa familiaren partetik!



Maddi

Zorionak printsesa! Amona eta aitoren partetik.



Nacho

Zorionak! Sei muxu handi aitaxo eta amatxoaren partetik. Ondo pasa!



Udane

Zorionak sorgina! Txokolatzeko bi muxu handi! Malen, aita eta amaren partetik.

| | |
|---|--|
| <p>Jaiotzak</p> <ul style="list-style-type: none"> Dana Del Ama Prieto, otsailaren 7an | <p>Heriotzak</p> <ul style="list-style-type: none"> Patxi Cacho Corral, otsailaren 16an, 57 urte zituela Pakita Mayo Murua, otsailaren 13an 86 urte zituela |
|---|--|

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Lasarte-Orian lokal bat alokatzen da. Interesaturik daudenak 615 735 180 telefono zenbakira deitu dezakete.

• Txalet bat saltzen da Valladolidetik 6 kilometrotara, tokialdaketa-gatik. 315 metro karratu, 200 metro eraikiak, bi urte eta altzira gutzit hornitua, 330.000 euro. Pisu aldaketa egiteko aukera dago. Tel.: 666 373 848, Lucia.

• Benidorren, Finestrako kalan, apartamentu bat alokatzen da oporretarako edo denboraldi bat igarotzeko. Hondartzatik 150 metrora dago. Merkata, dendak, golf zelaia eta merkatal gunea ondoan ditu. Interesa dutenek deitu, 667 731 456.

• Garaje bat salgai edo errentan jartzen dut, kultur etxeko eremu-ko etxebizitzetan. Harremanetarako zenbakia, 610 961 369.

• Bi garaje alokatzen dira, bata 70 eurotara eta bestea 60 eurotara. Harremanetarako 671 605 727.

• Pisu bat behar dut alokairuan, Lasarte-Orian edo inguruko herritan. Harremanetarako telefono zenbakia: 667 808 934.

• Pisu bat eskaintzen dut alokairuan Lasarte-Orian. 4. Pisu da, igogailuarekin eta erreformatua dago. 2 logela, egongela, komuna eta sukaldea ditu. Prezioa: 750

euro. Harremanetarako telefono zenbakia: 680 708 249, Mario.

• Usurbilen pisua alokatzen da. 2 gela, sukaldea, sala eta komuna. Harremanetarako: 670 070 562

Lan-eskaintzak

• Pertsona bat behar da arratsaldez bi urte eta erdi dituen ume bat zaintzeko. Interesaturik dagoenak deitu dezala honako telefono zenbakira: 687 230 051 eta galdetu Evagatik.

• Laguntza klaseak ematen dira, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa. Talde txikia, arreta pertsonalizatua, ikasgai guztiak... Tel.: 943 376 888 edo 646 645 445 (Maria).

Lan-eskariak

• Mutil bat eskaintzen da eraikuntzan, biltegietan edo nekazaritzan lana egiteko. Eskarmentua du. Afzal Muhammad, Tel.: 667 80 89 34.

• Lasarteko neska gaztea eskaintzen da kurtsuon zehar lana egiteko, umeak zaintzen edo klaseak ematen. Harremanetarako telefonoa, 677 823 141.

• Andre euskalduna eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Harremanetarako: 618 097 676.

Bestelakoak

• Umea eramateko mendiko motxila erosiko nuke. Harremanetarako zenbakia, 647 973 854.

Oharra jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 18
Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

Larunbata, 19
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Igandea, 20
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Astelehena, 21

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Asteartea, 22
De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Asteazkena, 23
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Osteguna, 24
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chula, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Mendeurrena ospatzen

Lorenza Vegas herritarra 1911ko otsailaren 14an jaio zen

Lorenza Vegas Calvo 1911. urteko otsailaren 14an jaio zen Salamanca, El Saugo herrian.

Duela 18 urte bere jaioterria utzi eta bere senarrarekin bere alaba Juana Carballo Vegasen etxera etorri zen bizitzera, Lasarte-Oriara hain zuzen ere.

Astelehenean, bere urtebetetzea ospatu zuen familia eta lagunen artean. Jesus Zaballos alkatea eta Ramon Uribe-Etxeberria apaiza ere zoriontzera hurbildu ziren.

Integrazio azkarra

Adinekoa zenean iritsi zen Lorenza senarrarekin Lasarte-Oriara "energiak ondo bazeuden ere, helduak ikusten nituen El Saugon bakarrik bizitzeko eta horregatik nirekin ekarri nituen" azaltzen digu bere alabak.

Azkar integratu ziren herrian "asko ateratzen ziren eta nire egunerokotasunean asko lagundu zidaten" gaineratzen du. Bere senarra hil zenean, duela 11 urte "ez zuen energiarik galdu. Erosketak egiten zituen eta jubilatuen etxean denbora ugari pasatzen zuen".

Egun oraindik ere burua argi daukala dio alabak, baina kalera gutxitan ateratzen dela, hala ere "zoriontsu bizi da bisitan etortzen diren lagunekin".

Lagun ugari

Astelehenean, Lorenzaren 100 urtebetetze ospakizunetan lagunez bete zen Juanaren etxea eta guztiak gauza bera nabarmetzen zuten Lorenzari buruz, "oso langilea, txin-



Lorenza irudian, erdian, Dimas eta Francisca anai-arreba eta Zaballos alkatearekin.

txoa eta jatorra izan da eta izaten jarraitzen du".

Herrian ezaguna izan da bizitasunagatik, baita bizilagunen artean ere.

Kontent zeuden Lorenzarekin bere 100 urtebetetzea ospatu ahal izatearekin "bizitasun handiko emakumea da, gainera duenarekin konformatzen da, eta hori oso garrantzitsua da" dio Rosarito bere bizilagunak.

Gainera "umila izan da eta familiakoei laguntzeko prest egon da beti, eta hori baloratzen da" Maritxu bizilagunaren iritziz.

Lasarte-Oria eta El Saugo

Lasarte-Orian ondo eta azkar integratu zen "bere izaerak asko lagundu zuen horretan, maitagarria da oso" dio Mari Jose bizilagunak.

Baina Lorenzak ez du inoiz bere jaioterria El Saugo ahaztu, bertan igaro baitu bere bizitzako urte garrantzitsuenak, eta horregatik al duenean bisitan doa.

Aurrera jarraituz

Etxea jendez bete zen Lorenzaren 100 urtebetetzea ospatzeko "oso ondo pasa dugu, eta espero dugu urte askoz ospatu ahal izatea" azaldu zigun bere alabak.

Lasarte-Oriak 25 urte

Herriak mende laurdena betetzen duen honetan Lasarte-Oriaren eboluzioari buruz hitz egitea ezinbestekoa dugu "egun obrak leihotik ikusten badituz ere herria asko eboluzionatzen ari dela esan dezaket, asko aldatu da etorri nintzenetik" dio Lorenzak. •

ZINEMA

Ekoinemaldia 21 eta 22an kultur etxean

Ekologistak Martxan taldeak bigarren urtez, Ekoinemaldia hurbilduko du Lasarte-Oriara. Otsailaren 21 eta 22an nazioarteko dokumentalak emango dira Manuel Lekuona kulturetxean. Hitzaldi aretoan, arratsaldeko 19:00etatik 21:00 bitartean hainbat film labur eta luzetaz gozatzeko aukera egongo da. Hauek guztiak, zor ekologikoaren gaia izango dute hizpide.

Astelehena 21ean, *La miseria de la riqueza*, *La historia de las cosas*, *Segundo Desembarco* eta *Así vivimos aquí* fimeak izango ditugu ikusgai. Asteartean, aldiz, *El final de línea*, *Historia del mecanismo de desarrollo limpio* eta *La tierra es nuestra* filmak.

Bi orduko saio hauetan eztabaidarako lekua ere egongo da, ikusitako gaiei buruz hausnartzeko.

Aurten gainera, nobedade batekin iritsiko da Ekoinemaldia-aren V. edizioa. Filmeen egileetako batzuk euskarazko subtutuluak erabiltzeko baimena eman dute. Era honetara, elebitasuna ahal den neurrian bermatu dute zinemaldiaren antolatzaileek. •



Bea Egizabal egon zen atzo Munterri-AEKn ipuinak kontatzen.

MUNTERI-AEK

Bea Egizabal ipuin mundua hurbiltzen

Ederki gozatu zuten atzo, osteguna, Munterri-AEK-ko ikasleek Bea Egizabalek kontatutako ipuin ezberdinekin. Hizkuntza erraz batean kondaira ezberdinak ekarri zituen Beak euskaltzera, baita irakaspena edo moraleja duten istorioak ere. Natura eta horren inguruko elementuak izan ziren protagonista narrazio hauetan. •

25. URTEURRENA

Sorgin dantza igande arratsaldean

Lasarte-Oriako udalerrira sortu zenaren 25. urteurrena ospakizunetan murgilduak gaude. Eta antzinako ohitura jarraituz, igandean Sorgin Dantzak herriko kaleak doinuaz eta dantzaz beteko ditu. Zumaburuko eliza ondotik, arratsaldeko 16:00etan atera eta Loidi-Barreneko frontoi inguruan amaituko da desfilea.

Takun elkarteak herritarrek blusa jantzi eta haur eta helduen zortzikotearen atzean parte hartzera animatu nahi ditu. •

Ezker abertzalearen buzoiak herritarren iritzia jasotzeko

Zure ahotsa, gure hitza" oinarritzat hartuta, ezker abertzaleak herritarren iritzia jasoko du herri programa alternatiboa prestatzeko: "hurrengo lau urte hauetan udaletxean eztabaidatu, sakondu eta defendituko dugun programa abertzale eta ezkerria".

Azken urteotan "demokrazia defizit izugarria" sufritu du herriak, ezker abertzalearen uestez eta egoera iraultzeko "demokrazia partehartzailea" praktikan jarriko du, "betidanik oinarritzko printzipio gisa hartu duguna".

Buzoia jarriko dira Xirimiri

eta Artizar tabernetan eta Zaballeta auzoko dendan herritarren ahotsa, iritzia, kezka eta iradokizunak jasotzeko.

Herri programak zerbait oinarri eta helburu izango ditu, lehenengoa krisi ekonomikoari erantzuteko irtenbide praktikoa, aldaketa politiko eta soziala, euskalduna izan beharko du, emakumeen ahotsa entzun eta defendituko duena, gazte eta hirugarren adinekoen beharrei erantzungo diena; Herriko kirola sendotzeko laguntzen banaketa egokia eta hondakinen kudeaketan aldaketa (atez atekoaren sistemaren aldekoa) ere, bultzatuko ditu. •



Herritarren parte hartzea eskatu dute herri programa osatzeko. 20 galdera dituen inkesta bat banatuko du ezker abertzaleak.



Astelehenean, Lasarte-Oriako bandera igo zen ereserkia entzuten zela. Aste osoan zehar, Udaletxeko balkioan egongo da.



Orain dela 25 urte, lehenengo udal batzarra egin zen Brigitarren komentuan eta hori gogoratzeko, asteartean meza egin zen. Paxi Exeberria bertsolariak eta boskote batek girotu zuten meza.



Akta irakurri ostean, Lasarte-Oriako ereserkia abestu zuten udal batzarrean bildu ziren guztiak.



Poesia eta lan irakurketa egin zen astelehen goizean.



Arratsaldean, Oria auzoari buruzko erakusketak ireki zuten.

25 urte ospatzeko beste hainbat ekitaldi

■ Asteartean bete ziren Lasarte-Oria eratu zenetik 25 urte ■ Ekitaldiz betetako agenda izan da aste honetako ■ Kultura izan da nagusi ekintzetan ■ Asteburuan ere ekintza ugari egongo dira

1986. urteko otsailaren 15ean Lasarte-Oriako udalerrira eta bere lehenengo Udal batzarra eratu zen. Herriko taldeen laguntzaz aste honetan zehar hainbat ekitaldi antolatu dira gure herriak bete dituen 25. urteak ospatzeko. Ospakizun ofizialak ere egon dira, baita liburu aurkezpenak eta hitzaldiak ere. Eta oraindik asteburua falta da.

TXINTXARRI

Besteren zati izan zera zu, baina gaur guztien artean, herri izan behar duzu, dio Lasarte-Oriako ereserkiak. Hori duela 25 urte gertatu zen eta egun hauek gure herriak bere urteurrena ospatzen du.

Astelehenean, Udaleko balkioan Lasarte-Oriako banderaren igoera egin zen herriko ereserkia entzuten zen bitartean. Horren ostean, EPA-HI Lan eta Lan antzerki taldeko lagunek, Lasarte-Usurbil institutuko eta Landaberri BHIko gazteek eta Zentro Zibiko emakumeek urte-

renari buruz egindako olerki eta lanak irakurri zituzten.

Ausencias liburua

Urteurrenaren egunean, astearte goizeko meza eta ekitaldi ofizialaz gain, arratsaldean Jesus Zaballos alkateak herrian izandako terrorismoaren biktimen oroimenez, *Ausencias* liburua aurkeztu zuen.

Lasarte-Oriako gobernu batzarreko kideak eta alderdi desberdinetako zinegotziak, hainbat politikari, Javier Rojo Senatuko lehendakaria, Iñaki Arriola Eusko Jaurlaritzako Garraio sailburua, Arantza Quiroga Euskal Legebiltzarre-



1986. urteko otsailaren 15eko udal batzarren akta irakurri zen asteartean.

ko Lehendakaria, Rafaela Romero Gipuzkoako Batzar Nagusietako Lehendakaria, Ederne Egaña Foru aldundiko lehendakariak ahaldua, Gobernu zentralera eta Eusko Gobernuo biktimen bulego-ko zuzendariak, Jose Manuel

Rodriguez Uribe eta Maixabel Lasa edo Maite Pagazaurtundua biktimen elkartereko lehendakaria eta herritar ugari bildu ziren Udal Batzar aretoan aurkezpeneko. Biktimen senideak eta haien hitzak, etorri ziren poli-

tikoen ahotsetan, izan ziren protagonista.

Kultur ekintzak nagusi

Asteazkenean, Lasarte-Oriaren sorrerako hitzaldia eskaini zuen Jose Manuel Centenok. Atzo, Udal Musika eta Dantza eskolako haur eta gaztetxoek emanaldia aparta eskaini zuten. Honen aurretik, *Lasarte-Oria oroimenez*, irudi eta argazki zaharrez osatutako, film laburra ikusi zen. Jarraian, *El Mundo Laboral de Lasarte-Oria* liburua aurkeztu zuen Antxon Agirre Sorondok.

Horretaz gain, areto futboloko derbia ISU Leihok - Aldaz ikusi zen kiroldegian. Eta asteburua ere ekintzez bete dator, hauei buruz jakitako, begiratu 7. orrialdeko agenda.

25. urteurreneko ekitaldien argazki gehiago ikusteko, www.txintxarri.info



Kukukako lagunek, astelehenean, klown eta dantza emanaldi paregabea eskaini zuten.



Orfeo Gazteak, VI. Musika Topaketan barruan, estilo desberdinetako doinuak ekarri zituen Brigitarren komentura.



Jose Manuel Centenok Lasarte-Oriaren sorrerari buruz eta mendean zehar egon diren saiakeretaz hitz egin zuen.



Emakumeen Zentro Zibiko eta Biyak Bat elkarterko abesbatzek hainbat doinu ezagun eskaini zituzten, asteazkeneko kontzertuan, hala nola, *La Bella Lola*, *Marixco*, *Ilunabarra* edo herriko ereserkiak.



Ausencias liburua aurkezpena egin zen. Iñaki Arriola F. Elesperen familiaren hitzak erakarri zituen.



Udal Musika eta Dantza eskolek ere haien harrixoa jarri zuten atzo eskaintako emanaldian.

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 19

10:00etan, Ostadar - Real Union (Infantil txikiak kopa) Michelinen.
 11:30an, Ostadar - Real Sociedad (Kadeteen Ohorezko maila, igoera fasea) Michelinen.
 13:00etan, Ostadar - Oiartzun (Infantilen Ohorezko maila, txapelketa fasea) Michelinen.
 14:30etan, Ostadar - Santo Tomas Lizeoa (Partehartze infantilak, kopa) Michelinen.
 16:00etan, Ostadar - Urnieta (I. Jubenila, kopa) Michelinen.
 17:45ean, Ostadar - Oiartzun (Jubenilen Ohorezko maila, igoera fasea) Michelinen.

11:00etan, Martutene - Ostadar (I. Kadetea, kopa) Martutene, Donostian.
 17:00etan, Beti Gazte - Texas Lasartearra (I. Erregionala, kopa) Mastegi, Lesakan.
 18:00etan, Bergara - Ostadar (I. Erregionala, igoera fasea) Ipintza, Bergaran.

Igandea 20

10:30ean, Ostadar - SANSE (Alebin kopa) Michelinen.

10:30ean, Astigarragako Mundarro - Ostadar (Erregional Goren) Zubietan, Donostian.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 18

HERRIKO TXAPELKETA
 19:45ean, ISU Leihoak - Morrison's
 20:40ean, Epel - Ainhoa

Larunbata 19

18:00etan, ISU Leihoak - Yone Boutique (Gipuzkoako Liga, I. maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

10:00etan, Oria Kris - S. Andalus
 11:00etan, Naiban - IOB H.K.
 12:00etan, Obelix - Illun
 13:00etan, Viña del Mar - Ilargi
 15:00etan, Kalaberri Z - Izkiña
 16:00etan, Buenetxea - Katakras

16:00etan, Concepto Createch - Aldaz H.K. (Nazional B maila) Olaizaga kiroldegia, Elgoibarren.

Igandea 20

HERRIKO TXAPELKETA
 10:00etan, Izarra - Lekuona Mena
 11:00etan, Ayete - Indaux

PILOTA

Ostirala 18

19:15ean, Allerru 2 - Intza (Udaberri txapelketa, eskuz binaka III. Kadetea) Udaleko frontoian, Lezon.
 19:45ean, Gazteleku 3 - Intza (Gipuzkoako Errendimendu txapelketa, Eskuz binaka infantilak) Andoaingo ikastola, Andoainan.

Larunbata 19

13:00etan, Intza - Gazteleku (Udaberri txapelketa, eskuz binaka II. Kadetea) Loidi-Barreneko frontoian.

Igandea 20

11:00etan, Urnieta 3 - Intza (Gipuzkoako Errendimendu txapelketa, eskuz binaka alebinak 2. urtea) Udaleko frontoia, Urnietan.
 12:00etan, Añorga I - Intza (Udaberri txapelketa, eskuz binaka I. seniorra) Ibaeta, Donostian.

ATLETISMOA

Larunbata 19

Egun osoa, LOKEko atletik junior, jubenil, kadete eta beteroenen pista estaliko Euskadiko txapelketa parte hartuko dute, Anoetako belodromoan, Donostian.

Igandea 20

Egun osoa, LOKEko atletik junior, jubenil, kadete eta beteroenen pista estaliko Euskadiko txapelketa parte hartuko dute, Gasteizen.

BOLA-JOKOA

Igandea 20

Egun osoa, Ostadarreko bola-joko taldeak Lehendakari txapelketako lehenengo jardunaldian parte hartuko du, Usurbilen.



Beltzak Ostadar Jaiak Errugbi Eskolako haur eta lagunak Jaiak tabernako Javier Mendorekin, erdian. Arg.: Beltzak Ostadar

‘Beltzak Ostadar Jaiak’ Errugbi Eskolak niki berria aurkeztu du

40 haur eta gazterekin egiten dute lan Errugbi Eskolan

Igandean, goizean goiz, Beltzak Ostadar Jaiak Errugbi Eskolak bere jantzi berriaren aurkezpena egin zuen.

Kamisetak berriak diseinu modernoak du eta eskolaren babesle den Jaiak tabernaren logotipoa ikusi daiteke.

Errugbi eskola

Beltzak Ostadar Eskola 2009. urtean sortu zen, Beltzak Errugbi taldearen 25. urteurrenaren dela eta.

Errugbia ezagutzera emateko sortu zen eta maila desberdinetako taldeak izatea du helburu.

Horretarako, taldeko ordezkariak adierazi dutenez, Beltzak taldeko jokalariek ohiek lan handia egiten dute, inolako irabazi asmorik gabe.

Bi urteko ibilbide honetan, Beltzak Ostadar Jaiak taldeak 8 eta 15 urte bitarteko 40 haur eta gaztetxo trebatu ditu

kirol honetan. Honela, benjamin, alebin eta infantil mailatan sortu du taldea eta hauekin hainbat errugbi topaketetara joan dira: Gasteiz, Iruña, Logroño, Arrasate edo Zarautz.

Interesatuentzat, entrenamenduak igandean izan ohi dira, 9:00etatik 10:30etara Michelingo kirol gunean.

Beltzak beterranoak

Bestalde, Beltzak taldeko beterranoen saila, noizean behin biltzen dela ere azaldu dute, partidak ikusi edo bidaia egiteko.

Bidaia hauetan nazioarteko lehiak zuzenean bizitzeko aukera dute, honela, Edinburgon, Erroman edo azkenekoz, Parisen izan dira.

Beltzak taldeko 20 bat herritara eta Zarautz Errugbi taldeko 12 bat pertsona Frantziako hiriburura joan ziren, otsailaren 4tik 7ra.

Jakin arazi digutenez, Parisen turismo pixka bat egin eta 6 Nazioetako Frantzia - Eskoziak partida ikusteaz gain, torneoaren inguruan sortzen den giroaz ere gozatu zuten gutziek.

Frantziak 34 - 21 irabazi zuen eta Beltzak taldekoek azaldu digutenez, "oso partida ona eta azkarra izan zen. Frantzia nagusi izan zen arren, Eskoziak oso ondo jokatu zuen. Tamalez, meletan Frantzia baino indar gutxiarekin aritu ziren Eskoziarrak eta horregatik, gailendu ziren frantsesak".

Web orrialdea

Hau guztiaren berri emateko, Beltzak taldeak www.beltzakerr.com orrialdea sortu du.

Orrialde honetan Eskolako topaketa desberdinen argazkiak edo taldearen berriak aurki daitezke, baita taldearekin harremanetan jarri ere. •



Beltzak taldeko beterranoak Parisen egon ziren duela bi aste 6 nazioetako frantzia-Eskoziak partida ikusten. Arg.: Beltzak Ostadar

Kiroletako oharrak

Pala txapelketa izena emateko epea gaur amaitzen da

Ostadar Kirol Fundazioak urtero antolatzen duen gomazko pilotarekin jokatzeko XVII. Pala Txapelketa bikoteen izena emateko gaur amaitzen da. Beraz, edizio honetan parte hartu nahi duten bikoteek oraindik ere garaz dabilza. Izena eman nahi dutenek Ostadarreko bulegora jo behar dute, Geltoki kalea 25, arratsalde 16:00etatik 20:00ak bitartean.

Buruntz Azpi elkarteak ehiza txapelketa

Buruntz Azpi elkarteak, martxoaren 12an, larunbatean, elkarteak ehiza txapelketa antolatuko du Buruntza mendiko larretan. Aurreko urteetan bezala, txapelketaren ostean, indarrak berreskuratzeko bazkaria gongo da. Txapelketa parte hartzeko, elkartearen izena eman behar dute interesatuek martxoaren 9a, asteazkena baino lehen.

Egunero

Erakusketa

MAITENA URRETABIZKAIAREN argazkiak ikusgai. Aukeratu gehien gustatzen zaizuna eta parte hartu zozketan. Jalgin.

Erakusketa

LASARTE-ORIAREN XXV. URTEURRENEAN "Oria" erakusketaren inaugurazioa. Kulturetxean, 19:00etatik 21:00etara.

Ostirala, 18

Antzerkia

DIBERTIMENDI lana aurkeztuko du Xebe Diez aktoreak. Jalgin, 23:00etan, EUSKARAZ.

Astelehena, 21

Zinea

EKOZINEMALDIA V. Edizioan hainbat film ikusgai. Filme batzuk euskarazko azpituak dituzte. Kulturetxean, 19:00etatik 21:00etara, BIETARA.

Asteartea, 22

Zinea

EKOZINEMALDIA V. Edizioan honako filmak ikusgai. Filme batzuk euskarazko azpituak dituzte. Kulturetxean, 19:00etatik 21:00etara, BIETARA.



Eusko Irudiak emanaldiarekin amaituko da biharko ekitaldia

ALBOKA ABESBATZA, SEMBLANTE ANDALUZ, ERKETZ DANTZA TALDEA, ZERO SETTE AKORDEOI ORKESTRA ETA AMAIA GONZALEZ taldeek emanaldi bana eskainiko dute lehenengo. Guztiak berea eskaini ondoren, Albokak, Erketzek eta Zero Settek Guridiren *Eusko Irudiak* emanaldia taularatuko dute.

LARUNBATEAN, HILAREN 19AN
KULTURETXEAN 19:30EAN
DOAN

Lasarte-Oriako XXV. urteurrena

Ostirala, 18

18:00 HERRIKO TALDEEN kontzertuak eta Kale Hezitzaileen tailerrak Andatza plazan.

Larunbata, 19

10:00 BOLA TXAPELKETA jokatu da Michelingo bolatokian.
11:00 GIMNASIA ERAKUSTALDIA Biyak Bat Erretiratuen etxeko taldearen eskutik. San Pedro parrokiaren ondoan.
11:30-13:30 HAURRENTZAKO
16:30-18:30 JOLASAK egongo dira Andatza plazan.
12:00 INTZAKO PILOTA partidak jokatu dira Loidi Barrenen.
23:00 AZABACHE taldearekin berbena Isla plazan.

Igandea, 20

10:00 KALBA jokoa izango da Atsobakar auzoan.
11:30-13:30 HAURRENTZAKO
16:30-18:30 JOLASAK egongo dira Isla plazan.
11:30 HELDUEN DANBORRADA aterako da Brigitarrenetik.
16:00 SORGINDANTZAREN DESFILEA aterako da Arantzazuko Amaren elizatik.
17:00 Texas eta Ostadar futbol taldeen DERBIA Michelinen.
18:00-22:00 ERROMERIA eskainiko du Amalur taldeak eta saiheski eta sagardo dastatzea izango da Loidi Barreneko frontoian.

Oharrak

Erraustegiaren aurka dantzan

Bi mila lagun dantzan jarri nahi dituzte martxoaren 20an eguerdian Zubietako plazan Erraustegiaren aurka eta moratoria eskatuz. Flashmob erraldoi hau egiteko "Hartu nahi dut arnas" kanta eta koreografia ikasteko saioak Lasarte-Orian asteazkenean, hilaren 22an, arratsaldeko 19:30ean Sasotako ikastetxeo gimnasioan izango dira. Dantza erraza dela jakinarazi dute antolatzaileek: dantzaren pausak ikasteko bideoa eta informazio zabalabala <http://www.gipuzkoaz.com/zerozabor/?p=302>, helbidean jarri dituzte.

Maria Auxiliadoraren meza

Arantzazuko Amaren kaperan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da otsailaren 24an, arratsaldeko 17:00etan.

Galdutako erlojua

Swatch markako erloju beltz bat galdu zait Lasarte-Oriako kiroldegia inguruan. Jaso duen pertsonari bueltatzea eskertuko nioke, opari bat zen eta. Eskerrik asko.
Mikel 647 995 050
(mikelgnieto@terra.es).

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Eskutitza

Errauskailua bankuen menpe

EAJ-PNV, PSE-PSOE, PP eta Hamaikak1 alderdi politikoek kostala ala kostara errauskailua eraiki nahi dute eta proiektua ondo "lotuta" utzi, horretarako haren kontrola banku hartze-kodunen esku uzten badute ere.

Legealdia bukatu aurretik errauskailuaren eraikuntzaren hari mutur guztiak ondo lotu nahi dituzte aipatutako alderdiek, horrek ekarriko duen ondorioa, hiri-hondakinen kudeaketaren kontrola kredituak eman dituzten bankuen esku uztea baldin bada ere. Gaurtik aurrera bankuek zuzenduko dute hondakinen kudeaketa, esaterako salneurrien eredu aldaketak edota eskuduntzen banaketa euren esku egongo dira eta.

Onartezinak dira errauskailuaren finantzaketarako hartu diren erabaki hauek, eta inola ere ezin dut akordioekin bat egin. Batetik, nola ulertu daiteke Europako Inbertsio Bankuak

Europako ingurumen arauak argi eta garbi hausten dituen egitasmoa finantzatzea? Banku honek ez luke inola ere Europako araudia errespetatzen ez duen proiektu honentzat dirurik jarri behar. Bestalde, lotsagarria da La Caixa eta Banestok negozioa egitea herritarren osasuna eta ingurumenaren lepotik: osasuna edo ingurumenaren aurretik jartzen dute bankuek negozioa.

Ez nau harritzen baina sutan jartzen nau Foru Aldundiaren eta erakunde honetan ari diren PNV, H1, PSOE eta PPko ordezkariekin jarraitzen. Erabaki eta akordio oso gaiztoa hartu dute eta ondorio larriak eragingo ditugu. Erabaki lotsagarri horiek geroa baldintzatu egingo dute ekonomikoki eta politikoki, bankuei emanen diete eta gerora egin daitekeen edozein aldaketa oztopatzeko, gainbegiratzeko eta kontrolatzeko ahalmen osoa. Eta zein da honen helburua? Horrela, errausketan oinarritutako hondakinen tratamendu ereduak babestu eta betikotu nahi dute, hurrengo foru eta udal hautes-

kundeetan seguru aski etorri daitekeen aldaketa eta erabakia gorenak herri palestinarren berriak baino lehen.

Ricardo Ortega

Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketako Kontseiluko kidea eta Lasarte-Oriako Ezker Batua Berdeak taldeko zinegotzia

Simon Peresen Zigorgabetasunaren kontra

Palestinako Okupazioaren Kontrako Elkartasun Sareak Israelgo Estatu aginte gorenaren ordezkariei den Simon Peresek Estatu espainolera otsailaren 24 eta 25ean egingo duen bisita salatzen du.

Erakunde sionistaren ordezkariei gorenak herri palestinarren kontra hainbat eraso eragin zituen Hagana talde paramilitarren kidea izan zen. Qana (Libano, 1996) hilketaren erantzule izan zen, 102 zibil eta hiru kasko urdinen heriotza eragin zuena, eta eraso ikertu zuen NBEko batzordeak alde

aurretik pentsatua zegoela adierazi zuen. Simon Peres Gazako herritarren kontrako erasoaren arduraduna ere izan zen, 1.400 hildako eragin zuena, horietako asko zibilak. Nahiz eta mendebaldeko gobernuak Simon Peres "bakearen aldeko gizon" modura aurkezten saiatu, Israelgo Estatuaren ordezkariekin ibilbidea odoltsua da Palestinara heldu zenetik gaur arte. Zuzendu dituen ekintzak eta politikak herri palestinarren suntsiketa, mina eta heriotzak besterik ez dute eragin.

Bisita hau Espainiako monarkiaren eta Estatu sionistaren arteko harreman diplomatikoen 25. urteurrenean egiten da eta bisitaren helburua Israel eta bertako ordezkariek legitimatzen jarraitzea da erakunde demokratikoa eta normalizatu delakoan, eta era berean, bi estatuen arteko harreman diplomatiko eta ekonomikoak indartzeko.

Palestinako Okupazioaren Kontrako Elkartasun Sarearen ustez, Palestina historikoan bizi den biztanleriaren erdia-

ren kontra apartheid politikak sistematikoki praktikatzaren dituen Estatu ez da demokratikoa eta bestetik, etengabe Nazioarteko Zuzenbidea eta Giza Eskubideak urratzen dituen Estatu ere ez dela normalizatu behar eta ez direla estatu horrekin inongo harremanik eraiki behar. Horregatik guztiatik, Estatu espainoleko gobernuaren jarrera konplizea salatzeaz gain, Palestinako Okupazioaren Kontrako Elkartasun Sareak Espainia eta Israelen arteko akordio komertzialak bertan behera uzteko beharra gogorarazten du, akordio militarrek bereziki. Era berean, gure gobernuak Israelen dituzten edozein mota-tako harreman instituzionala apurtzeko exijentzia azpimarratzen du, Israelen Nazioarteko Zuzenbidea bete arte.

Sionismoaren zigorgabetasuna buka dadin eta krimengileak zigortu ditzaten, dauden lekuan daudela.

Palestinako Okupazioaren Kontrako Elkartasun Sarea

Iñigo Sevillano Atleta

“Oso zaila da atletismoan mantentzea”

■ Pista estaliko 60 metro hesiak proban, urrezko domina eskuratu zuen Gipuzkoako txapelketan eta zilarrezkoa Euskadikoan ■ Errealaren atletismo sailarekin Ohorezko mailan lehiatzen da

NEREA EIZAGIRRE

Gaztetan hasi zen Iñigo Sevillano atletismoan, herriko LOKE taldean, gero *Atletico San Sebastianen* aritu zen eta egun *Real Sociedad* taldean dago.

Aldaketa hauek guztiak, markak hobetzearen ondorio direla esan digu, "hobetzen zoaz eta hobekuntza horrek dakar taldez aldatzea".

Hala ere, urte horietan guztietan, hesietako probak egin zituela aitortu digu, "urte dezente daramat hesietako proba egiten. Espezializatua nagoela esan daiteke".

Izan ere, pista estalian, 60 metro hesiak proba egiten du eta aire librean, berriz, 110 m hesiak. Iñigok azaldu zigunez, "hesiaren altuera eta hauen arteko distantzia berdina da. Baina, 60 metroetan 5 hesi dira eta 110 metroetan 10 hesi".

Gainera, aire librean hobeto moldatzen dela adierazi zuen, baina "politagoa da pista" eta "60 metroetan akats gutxiago egin ditzakezu. Gaizki ateratzen bazara bost hesi dira eta 60 metro, beraz errekupeztzeko zaila da; 110 metroetan, moldatzeko aukera gehiago eduki dezakezu," erantsi zuen.

Dominak

Otsailaren 6an, Gipuzkoako txapelketak burutu ziren Anoetako belodromoan eta bertan, Iñigo Sevillanok urrezko domina eskuratu zuen.

Baina ez da lehenengo aldia izan, "hasi nintzenetik maila desberdinetan batzuetan txapelketa izan naiz eta besteetan txapelketa ordea".

Txapelketa honetan egindako markagatik, 8 sg 71, galdetu eta "ez da denbora ona," onartu du berak: "entrenatzailez aldatu dut aurten eta ezagutu arte..." azaldu zuen. Iñigok aipatu zuenez, "atleta asko dabil marka horretan".

Honetaz gain, lehenengo asteburuan, Euskadiko txapelketetan txapelketa orde izan zen. "Ez nago nire momentu onenean, lesio asko izan ditut eta molestia iskiotan. Beste lehiaketak kontuan izanik, hobeto nago eta Gipuzkoako txapelketa irabazteak, animoak altxa dizkit. Maila nahiko altua da, hala ere, lehenengo hiru egutegiaren aukera dudala uste dut" aipatu zigun Iñigok txapelketa baino lehen.

Estatuko txapelketa

Asteburu honetan, otsailaren 19an eta 20an, Estatuko txapelketa egingo da Valentzian eta bertan parte hartzeko "8sg 40 da gutxieneko marka," aipatu zuen.

Eta zera adierazi zigun, "marka horrekin jende gutxi joango da Estatuko txapelketa eta jende gehiago hartuko dute. Estatu mailan ez dago jende asko marka hori egingo duenik".

"Estatuko lehenengo hogeita lau sailkatzen dira txapelketarako

eta ez dute marka hori egiten gehienek. Lehenengo hamarrak edo hamabostak egiten dute. Gero ranking-aren arabera hartzen dituzte. Kopurua mugatzeok jartzen da gutxieneko marka," azaldu zigun.

Horregatik, "Estatuko txapelketara joateko aukera txiki bat badago," aipatu zuen Euskadiko txapelketa baino lehen.

Hala ere, "nahiz eta lehenengo hogeita lau egutegi egon, Euskadiko markaren arabera erabakiko dut," adierazi zigun Iñigok.

"Marka ona ez bada ez naiz Valentzian joango, bidaia luzea da eta lasterketa bakarra izango da seguruenik. Euskadikoan marka txukunago bat egiten badut 8 sg 58 edo horrelako zerbait, beno, a gian bai," atxiki zuen.

Elkarrizketa egiterako momentuan Iñigoren markarik onena Gipuzkoako txapelketakoa zen, baina Euskadiko txapelketan egin zen proba librean marka hori hobetzea lortu zuen, 8 sg 64. Hala ere, Iñigok jakin arazi digunez, ez du Estatuko txapelketan parte hartuko.

Esfortzu handia

Atletek lan eta ordu asko egiten dute entrenatzen, marka hobetzeko helburuarekin. Sevillano ren ustez "horretara zehazki ez bazaude arraro da nire adinean jarraitzea".

"Lanean, entrenatzen eta ikasten ari naiz. Egutegiaren entrenatzen dut. Zorteak gainera, monitorea lanetan nabilerako eta ordutegiak entrenatzen uzten didalako. Ikasketak bukatu berri ditut. Baina zaila da, jende gaztearekin lehiatzen ari baitzara. Horiek goizean ikasi eta arratsaldean entrenatzen dute. Denbora eta lasaitasun gehiago daukate. Ez da gauza berria karrera bukatzeko zaudela edo lanean zaudela," aipatu zigun.

Txapelketetan ere nabarmena dela adierazi zuen, "Anoetako belodromoan, nire garaian hasi

ginetik lauk jarraitzen dugu. Oso zaila da mantentzea. Esfortzu handia eskatzen dizu eta zuk eman duzunaren emaitza lortzea zaila da askotan".

Ohorezko mailan

Honetaz guztiaz gain, *Real Sociedad* taldearekin Ohorezko mailan lehiatzen da Iñigo Sevillano. "Errealeko taldearekin, Futboleko 1. mailan egongo banintz bezala da, honi Ohorezko maila deitzen zaio eta ez dago beste kategoriarik, altuena da" azaldu zuen.

"Ondo moldatzen gara, hamasei talde gaude guztira maila horretan. Orain dela hiru urte, Erreala laugarren geratu zen eta finalera iritsi ginen; bestela, seigarren edo zazpigarren gabilta" aipatu zigun.

Egun talderik indartsuena *Playas de Castellón* dela adierazi zigun eta "beti haien aurka daukagu lehenengo jardunaldian".

"Lau taldek parte hartzen dute konpetizio bakoitzean eta beti da *Playas* horietako bat. Eremuen arabera egiten da eta gainera, beti daukagu lehenengo jardunaldia Katalunia aldean. Aurten ere, apirila erdialdean edo izango da hori," azaldu zigun.

Baina hori, aire libreko denboraldia izango da, "pista estaliko lehiaketak otsailen amaitzen dira Estatuko txapelketarekin. Martxoan aurreneboraldi txikia dugu eta gero aire librean lehiatuko gara," azaldu zigun Sevillanok. •



Iñigo, Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketan eskuraturako dominekin.



ZORIONAK
LASARTE-ORIA !!

